

BAGABILTZA

LHK-ko euskara-planaren buletina

MINTZA KAFEA

URTARRILEKO

AHOZAGARRIA:

ARROZ TARTA

Osagaiak

- 1,250 mililitro esne
- Dozena bat arrautza
- 375 gramo irin
- 300 gramo azukre
- 300 gramo gurin
- Adarreko kanela (pote bat)
- Banillaren esentzia (5 koilarakada handi)

Prestaketa:

1. Esnea kanelarekin egosi.
2. Zuringoak eta gorringoak bereizi.
3. Gorringoei azukrea, gurin urtua eta irin bahetua bota.
4. Nahasketa horri esne beroa eta banillaren esentzia gehitu.
5. Dena ondo nahastu.
6. Zuringoak elur-puntuan gehitzen dira.
7. Nahastu berriro nahasketa ontzira bota aurretik.
8. 30 zentimetroko diametroa duen molde bat gurinarekin igurtzi eta labean jarri (gutxi gorabehera 1,20 minutu-180 gradu).



**OTSAILEKO
AHOZAGARRIA:
OPILTZOAK
"AIRFRYER"
DELAKOAREKIN**



MAIATZA | XIV. ZENBAKIA

FORMAKUNTZA

Apirilaren 9an, goizeko 10:00etan, saio berezia antolatu zen gure Bilboko egoitzan. Alde batetik, Euskararen Dekretuaren laburpena egin zuen Maitek, gure Elhuyarreko aholkulariak, eta bestetik, Josuk formakuntza-saioa antolatu zuen, laneko testuak euskaraz sortzeko moduen gainean. Saioan, Josu eta Maiterekin batera, 8 langile egon ziren aurrez aurre Bilbon, eta Gasteizko eta Donostiako egoitzetako langile guztiak konektatu ziren saiora uneren batean. Garrantzitsua zen langileek gure ahotik dekretuaren berri izatea, eta espero dugu formakuntzak ere ondorio positiboak izatea.



KORRIKA



**“Lan Harremanen
Kontseiluko
langileak, 23.
KORRIKArekin bat”**

Gure lana polisemian murgilduta. Lan Harremanen Kontseiluaren egunerokoan Lan Zuzenbidea eta hitzarmen kolektiboak dauzkagu lan-tresna. Batek, hasiera batean behintzat, pentsa lezake araudiek eta akordioek esanahi bakarra eta argia izan beharko luketela.

Baina hara non egunero-egunero topatzen ditugun hainbat interpretazio eta ulertzeko modu ezberdin, eta askotan kontrajarriak, lege bera edo hitzarmen kolektibo bera irakurtzeko orduan.

Bai, nolabait esateko polisemia da nagusi gure arloan. Ulertzekoa da alderdi bakoitzak legearen eta akordioen espiritua beti bere aldera ekarri nahi izatea. Horri gehitzen badiogu arauak onartzean eta akordioak idatziz jasotzean hainbat oreka gorde behar direla, polisemiaren pastela prest daukagu. Eta gainera marrubia edo gerezia jarri nahi badiogu, ez ahaztu hitzarmen kolektiboaren eta arauen sortze-lanetan ekoizle edo idazle bat baino gehiago jarri ohi dela jokoan. Beraz, Lan Harremanetan hitzen esanahi-aniztasuna non-nahi!

ZUTABEA



Alex García Mujika